

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK IBILBIDE BERRI BAT SORTZEKO BIZKAIBUS ZERBITZUAREN A3641 LINEAN, "008 URDUÑA/ORDUÑA-GALDAKAO OSPITALEA (ZUZENA)" IBILBIDEA ETA BIDAIA SARTUTA. HORI GUZTIA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO AIARAKO KUADRILLAKO HERRIEK ETA URDUÑA UDALERRIAK (BIZKAIBUSEN A-3641 LINEAKO HERRI NAGUSIA) GALDAKAO-USANSOLO OSPITALEAREKIN LOTURA HOBEA ETA ZUZENAGOA IZAN DEZATEN.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA DIPUTACIÓN FORAL DEL ÁLAVA PARA LA CREACIÓN POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA DE UN NUEVO ITINERARIO/RUTA EN LA LINEA A3641 DEL SERVICIO DE BIZKAIBUS, ITINERARIO "008 URDUÑA/ORDUÑA-HOSPITAL GALDAKAO OSPITALEA (ZUZENA-DIRECTO)", INCORPORANDO NUEVAS EXPEDICIONES AL MISMO, TODO ELLO CON EL FIN DE LOGRAR UNA MEJOR Y MAS DIRECTA CONEXIÓN CON EL HOSPITAL DE GALDAKAO-USANSOLO PARA LAS LOCALIDADES DE LA CUADRILLA DE AYALA DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA, ASI COMO PARA EL MUNICIPIO DE ORDUÑA, MUNICIPIO DE CABECERA DE LA LINEA A3641 DE BIZKAIBUS.

BILDU DIRA

Alde batetik, Sonia Pérez Ezquerria andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru-diputatua.

Bestetik, Jon Nogales Prieto jauna, Arabako Foru Aldundiaren Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegituren saileko foru-diputatua.

PARTE-HARTZAILEAK

Sonia Pérez Ezquerria andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa. Horretarako, aldez aurretik Foru Gobernu Kontseiluak 2025ko azaroaren 13an egindako bileran hartutako erabakiaren ahalmena du.

SE REÚNEN

De una parte, Doña Sonia Pérez Ezquerria, Diputada Foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia.

De otra parte, Don Jon Nogales Prieto, Diputado Foral de Movilidad Sostenible e Infraestructuras de la Diputación Foral de Álava.

INTERVIENEN

D^a. Sonia Pérez Ezquerria, actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, para lo cual se encuentra previamente facultada por Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en la sesión celebrada el día 13 de



noviembre de 2025.

Jon Nogales Prieto jauna, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa. Ahaldu nagusiaren ekainaren 30eko 153/2023 Foru Dekretuaren bidez ahalmena eman zitzaion.

D. Jon Nogales Prieto actuando en nombre y representación de la Diputación Foral de Álava, facultado mediante Decreto Foral 153/2023, del Diputado General de 30 de junio.

Bi alderdiek, esku hartzen dutenez, hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

Ambas partes, según intervienen, se reconocen entre sí la capacidad jurídica necesaria para la suscripción del presente Convenio y a tal efecto.

ADIERAZI DUTE

EXPONEN

Euskal Autonomia Erkidegoaren barneko garraioaren arloan, foru-lurraldeek izaera historikoarekin zituzten ahalmenak eguneratzea estatutu-erregimenari lotuta geratu da (apirilaren 26ko 76/1988 KAEk adierazi bezala), Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarria kontuan hartuta, eta erregimen hori garatzeko, funtsean, Autonomia Erkidegoaren foru-erakunde komun eta bertako Lurralde Historikoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen bidez eguneratu da (10. artikulua), baita Euskal Autonomia Erkidegoak lurralde historikoei eskumenak transferitzeko edo eskuordetzeko Eusko Legebiltzarrak emandako legeen bidez ere, edota Eusko Jauriaritzak foru-aldundiei bere eskumeneko zerbitzuak kudeatzeko eta emateko emandako eskuordetze-dekretuen bidez. Alde horretatik, 36/1985, 46/1985 eta 56/1985 Dekretuak aipatu behar dira. Dekretu horien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek garraioaren arloan zituzten zerbitzuak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Lurralde Historikoetako aldundiei eskualdatu zitzaizkien.

I.- En materia de transporte intracomunitario del País Vasco, la actualización de las facultades que los territorios forales ostentaban con carácter histórico ha quedado vinculada, partiendo de la Disposición Adicional primera de la Constitución, al régimen estatutario (tal y como declaró la STC 76/1988 de 26 de abril), y como desarrollo de éste la actualización se ha realizado, con carácter fundamental, a través de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos (concretamente en su artículo 10), así como las Leyes del Parlamento Vasco a través de las cuales se procede a la transferencia o delegación de competencias por la Comunidad Autónoma del País Vasco a los Territorios Históricos, o incluso a través de Decretos del Gobierno Vasco de delegación en las Diputaciones Forales de la gestión y prestación de servicios de su competencia. En este sentido, tenemos los Decretos 36/1985, 46/1985 y 56/1985, a través de los cuales se traspasaron los servicios de las instituciones comunes de la Comunidad



Autónoma en materia de transporte a las Diputaciones de los Territorios Históricos de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia.

II.- Lurralde Historikoen Legearen 10.artikuluak honako hau xedatzen du: *“Errepidetatikako Ibilgailuzko Garraioen alorreko Legegintza, Arauen bidezko Egiterapena, Goren-ikuskaritza, Egitamugintza eta Antolakidetzatza Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeei dagozkie. Kondaira-Lurraldeek, bere mugartean, eta indarrean dauden Erresumarekiko Ituneen arauera, Arabak orain dituen ahalmenak heurak eta nolako berdinez erabiliko dituzte”.*

II.- El citado artículo 10 de la Ley de Territorios Históricos dispone que *“Corresponden a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma las competencias de Legislación, Desarrollo Normativo, Alta Inspección, Planificación y Coordinación en materia de Transportes Mecánicos por carretera, ejerciendo los Territorios Históricos las mismas facultades y con el mismo carácter que en el presente ostenta Álava, dentro de su territorio, de acuerdo con los convenios vigentes con el Estado”.*

III.- Erkidego barruko garraioaren arloko legegintza-eskumena garatzearen, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legea onartu zen. Horren arabera *“Autonomia Estatutuko 10.32 artikuluan ezarritako eskumen eskusiboan du jatorria eta oinarria, betiere arlo horretako boterearen lurralde-banaketari buruzko konstituzionaltasun-multzoko agindu horri eta beste agindu batzuei buruz Konstituzio Auzitegiak (batez ere ekainaren 27ko 118/1996 epaian) egin duen interpretazio-ildoan.*

III.- En desarrollo de la competencia legislativa en materia de transporte intracomunitario se aprobó la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Personas viajeras por Carretera del País Vasco. Según la Exposición de ésta *“tiene su origen y fundamento en la competencia exclusiva establecida en el artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía, dentro de la línea de interpretación que de este y otros preceptos del bloque de la constitucionalidad relativos a la distribución territorial del poder en la materia ha realizado el Tribunal Constitucional, básicamente en la Sentencia 118/1996, de 27 de junio”.*

IV.- 2.artikuluaren arabera, erabilera orokorreko garraio publikoak dira *“besteren kontura egiten direnak, ordainsari ekonomikoaren bitartez” “...eskari orokorrari erantzutera zuzentzen badira eta edozeinek erabili ahal baditu”.* Era berean, artikulua horrek hau dio: *“Herri barrukoak dira oso-osoarik udalerrri beraren barruan egiten diren garraioak; gainerako garraioak, berriz, herri arteko garraiotzat jotzen dira”.*

IV.- De conformidad con su artículo 2 son transportes públicos de uso general *“los que se llevan a cabo por cuenta ajena mediante retribución económica” “...dirigidos a satisfacer una demanda general, siendo utilizables por cualquier interesado”.* Del mismo modo, dicho artículo dispone que *“son urbanos los transportes públicos que transcurren íntegramente dentro del mismo término municipal, teniendo el resto de los transportes*



la consideración de transporte interurbano”.

V.- Aipatutako 4/2004 Legearen 4.2 artikuluan ezartzen da, halaber, lurralde historikoei eskumenak esleitzeko irizpide orokorra: *“Zerbitzu publikorako administrazio-emakidetan, foru-aldundiek eskumena izango dute, kasu hauetan, zerbitzuak sortu, esleitu, bateratu, aldatu, ezabatu eta berreskuratzeko:*

- a) *Bidaiarien garraio-zerbitzua lurralde historikoaren barruan gauzatzen denean oso-osorik.*
- b) *Lurralde historikoz gaindikoak izan arren, handik kanpora igarotzeko debekua dutenean.*
- c) *Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko zerbitzuak izanik, eta aurreko kasuetan sartzen ez direlarik, ibilbide-zatirik handiena lurralde historikoaren barruan dutenean.*

VI.- Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak bidaiarien garraio erregularreko foru-zerbitzu publikoa emateko eskumena dute, erabilera orokorreko bidaiarien hiriarteko garraio iraunkorreko zerbitzu erregularreko emakidak emanda, betiere ibilbide osoa edo zatirik handiena bakoitzaren lurralde historikoaren barruan badute.

VII.- Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saila da, Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan, bidaiarien errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren arloan eskumena duen saila. Bizkaiko Lurralde Historikoan eskumen hori Sailari atxikitako BIZKAIBUS zerbitzuak kudeatzen du, gaur egun zeharka, eta

V.- Dicha Ley 4/2004 establece además en su artículo 4.2 el criterio general de atribución de competencia a los Territorios Históricos: *“En las concesiones administrativas de servicio público, las diputaciones forales son competentes para la creación, otorgamiento, unificación, modificación, supresión y rescate de los servicios en los siguientes casos:*

- a) *Cuando se desarrollen íntegramente dentro del territorio histórico.*
- b) *Cuando, aun trascendiendo del territorio histórico, tengan prohibición de tráfico fuera de él.*
- c) *Cuando se trate de servicios de competencia de la Comunidad Autónoma y, no estando comprendidos en los casos anteriores, tengan su mayor recorrido dentro del territorio histórico”.*

VI.- Por lo tanto, la Diputación Foral de Bizkaia y la Diputación Foral de Araba ostentan la competencia para prestar el servicio público foral de transporte regular de personas viajeras mediante el otorgamiento de concesiones de servicio regular interurbano de transporte permanente de personas viajeras de uso general, siempre y cuando tengan toda o la mayor parte de su recorrido dentro de su respectivo territorio histórico.

VII.- El Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo es, dentro de la Diputación Foral de Bizkaia, el departamento competente en el ámbito del transporte público interurbano de personas viajeras por carretera. Actualmente, dicha competencia en el Territorio Histórico de Bizkaia se gestiona de manera indirecta por



hitzarmen honen jarduketa-eremurako, “NERBIOI-ARRATIA-DURANGALDEA” ERREPIDEKO BIDAIARIEN ERABILERA OROKORREKO GARRAIO PUBLIKO ERREGULAR IRAUNKORREKO ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO KONTRATUAREN baldintzen arabera.

2024ko azaroaren 28an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak (gai-zerrendaren 23. gaia) onartu zuen Nerbioi-Arratia-Durangaldea errepideko bidaiari-garraio publiko erregular iraunkorreko eta erabilera orokorreko zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuaren jarraipena (AVANZA DURANGALDEA SA sozietate kudeatzaileari esleitua; IFZ: A95765566), kontratu hori arautzen duten administrazio-klausula partikularren pleguaren karatularen M atalean eta preskripzio tekniko partikularren pleguaren III. tituluan ezarritakoaren arabera.

Erabaki horren xedapenen lehenengo zatian ohartarazten denez, zerbitzua ematen jarraitzeko behar den denboran bakarrik emango da zerbitzua, eta epe horrek ezin du gainditu 2028ko ekitaldiaren amaiera-data, hori izango baita akordioaren indarraldiaren muga.

Hori esanda, zerbitzua ematen jarraituko duen emakidadunarekiko kontratuak 2028ko ekitaldia izango du epemuga, eta

el servicio denominado BIZKAIBUS, adscrito al propio Departamento, y para el ámbito de actuación del presente convenio, en los términos del CONTRATO DE GESTIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS DE SERVICIO DE TRANSPORTE PÚBLICO REGULAR PERMANENTE Y DE USO GENERAL DE VIAJEROS POR CARRETERA “NERBIOI-ARRATIA-DURANGALDEA”.

Con fecha de 28 de noviembre de 2024 se aprobó en Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia (asunto nº 23 del OD) la continuación del contrato de gestión de servicios públicos del servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros por carretera Nerbioi-Arratia-Durangaldea, adjudicado a la sociedad gestora AVANZA DURANGALDEA SA, NIF A95765566, de conformidad con lo establecido en el apartado M de la carátula del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Título III del Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares, que regulan el mencionado contrato.

Tal y como se advierte de la parte dispositiva primera del citado Acuerdo, la continuación del servicio tendrá lugar por el tiempo estrictamente necesario para la conclusión del procedimiento que determine la subsiguiente prestación del servicio, estimándose que dicho plazo no debe exceder de la fecha de finalización del ejercicio 2028, que constituirá el límite de vigencia del acuerdo.

Dicho lo cual, el contrato con la concesionaria sujeto a continuación del servicio tiene como fecha límite el ejercicio



inguruabar juridiko hori kontuan hartu beharko da, hitzarmen honen indarraldiari zuzenean eragiten baitio.

VIII.- Gaur egun, Orduña eta Aiaraldea Galdakao-Usansolo Ospitalearekin lotzen dira Bizkaibussen A3641 linearen (*Nerbioi Garaia-Arrigorriaga-Galdakao-Usansolo Ospitalea*) bidez.

Linea horrek egunero 7 bidaiak egiteko zerbitzua eskaintzen du Orduñan, Amurrión eta Aiaran, JOANEKO noranzkoan (irteerak Orduñatik 6:35ean, 9:35ean, 11:35ean, 13:35ean, 17:35ean, 18:35ean eta 21:35ean), eta beste 7 bidaiak egiteko ITZULERAKO noranzkoan (irteerak Ospitaletik 7:25ean, 9:25ean, 11:25ean, 15:25ean, 16:25ean, 19:25ean eta 20:25ean), astelehene-tik larunbatera, lanegunetan.

Laudion eskaintza hori handiagoa da Orozkotik zerbitzua ematen duen ibilbidea dela eta: 9 bidaiak JOANEKO norabidean eta beste 9 ITZULERAKO norabidean. Laudiora ordubetean behin joan daiteke lanegunetan, astelehene-tik larunbatera.

IX.- Gaur egun A3641 lineak eskaintzen dituen ibilbideek Laudiotik Galdakao-Usansolo Ospitalera iristeko 60 minutu baino gehiago behar dituzten zerbitzuak eskaintzen diete Goi-Nerbioiko udalerrietako erabiltzaileei, eta 80 minutu baino gehiagokoa Orduñatik.

X.- Bai Bizkaiko Foru Aldundiak bai Arabako Foru Aldundiak badakite formula kooperatiboen bidez, erakunde bakoitzak esleituta dituen aldebakarreko eskumenak betetzeaz gain, bidaiarien errepideko garraio publiko erregularreko zerbitzua eskaini behar

2028, circunstancia jurídica que habrá de ser tenida en cuenta por afectar directamente a la vigencia del presente convenio.

VIII.- Actualmente, Orduña y la comarca de Aiaraldea se conectan con el Hospital de Galdakao-Usansolo mediante la línea A3641 *Nerbioi Garaia/Alto Nervión Arrigorriaga-Hospital Galdakao-Usansolo*, de Bizkaibus.

Dicha línea, ofrece a Orduña, Amurrión y Ayala un servicio de 7 expediciones diarias en sentido IDA (salidas desde Orduña a las 6:35, 9:35, 11:35, 13:35, 17:35, 18:35 y 21:35) y otras 7 en sentido VUELTA (salidas desde el Hospital a las 7:25, 9:25, 11:25, 15:25, 16:25, 19:25 y 20:25) de lunes a sábado en días laborables.

Desde Llodio esta oferta se ve incrementada por la ruta que da servicio desde Orozko, en 9 expediciones en sentido IDA y otras 9 en sentido VUELTA, que ofrecen a Llodio una frecuencia de una expedición cada hora de lunes a sábado en días laborables.

IX.- Las rutas que presenta en la actualidad la línea A3641 ofrecen a las personas usuarias de los municipios de Alto Nervión unos tiempos de acceso al Hospital de Galdakao-Usansolo que pueden superar los 60 minutos desde Laudio y los 80 minutos desde Orduña.

X.- Tanto la Diputación Foral de Bizkaia como la Diputación Foral de Araba son conscientes de la necesidad de ofrecer mediante fórmulas cooperativas, más allá del estricto ejercicio unilateral de las competencias que cada institución tenga atribuidas, un servicio de



dela, erabiltzaileen eskaerak asetzeko eta oinarritzko zerbitzu publikoekiko mugikortasuna hobetzeko (Galdakao-Usansolo Ospitalea).

transporte público regular de personas viajeras por carretera que pueda satisfacer las demandas de las personas usuarias, mejorando la movilidad respecto a los servicios públicos básicos de referencia (Hospital de Galdakao-Usansolo).

XI.- Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak, bidaiariak errepidez garraiatzeko Bizkaibus zerbitzuaren titular den aldetik, zerbitzua hobetu ahal izango du, Arabako Lurralde Historikoko Aiarako Kuadrilla eta Urduñan bizi diren pertsonen Galdakao-Usansolo Ospitalearekin lotura hobea eta zuzenagoa emango dien ibilbide berri bat sortuta. Izan ere, ospitale hori Aiarako eta Laudioko osasun-eremuen (BARRUALDE-GALDAKAO ESI) osasun-erakunde integratua da. Ibilbide berri horren bidez, linea horren zerbitzuaren/ustiapenaren kostua handitu egingo da, eta, horrenbestez, baita Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzua ematen duen enpresari ordaintzen dion zenbatekoa ere.

XI.- A tal fin, la Diputación Foral de Bizkaia, como titular del servicio de transporte de personas viajeras por carretera denominado Bizkaibus, está en disposición de mejorar la prestación del servicio mediante la creación de un nuevo itinerario que proporcione a las personas residentes en las localidades de la Cuadrilla de Ayala del Territorio Histórico de Álava como a las personas residentes en Orduña una mejor conexión y más directa con el Hospital de Galdakao-Usansolo, el cual resulta ser la organización sanitaria integrada de las zonas de salud de Aiala y Llodio (OSI BARRUALDE-GALDAKAO). Este nuevo itinerario/ruta supone un incremento del coste de servicio/explotación de la citada línea y, por consiguiente, de la compensación que la Diputación Foral de Bizkaia abona a la empresa prestataria del servicio.

XII.- Beraz, baliabide publikoak optimizatzean eta arrazionalizatzean azaltzen diren interes orokorreko arrazoi nabariak kontuan hartuta—eta, besteak beste, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikulua eta hurrengo arabera, eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen arabera (foru-sektoreari aplikatzekoak diren artikuluetan)—, bi administrazio sinatzaileek lankidetzan aritu eta beren borondateak eta eskumenak koordinatu nahi dituzte, herritarrek erreferentziako osasun-zentro publikoekiko eta jasangarritasun- eta mugikortasun-

XII.- Por tanto, en atención a evidentes razones de interés general que se explicitan en la optimización y racionalización de los recursos públicos, y de conformidad, entre otros, con los artículos 140 y ss de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como de conformidad con la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco (en aquellos artículos de aplicación al sector foral), ambas Administraciones firmantes pretenden cooperar y coordinar sus voluntades y competencias con el objeto de mejorar la conexión y movilidad sostenible de la ciudadanía respecto a los centros públicos de



helburu legitimoekiko duten lotura eta mugikortasun jasangarria hobetzeko. Hitzarmen honen bidez, ibilbide berri bat sortuko da A-3614 linean, eta Galdakao-Usansolo Ospitalearekiko lotura hobea eta zuzenagoa izateko bidaia gehiago egingo dira, bai Arabako Lurralde Historikoko Aiarako Kuadrillako herrietan bai Urduñan (gaur egun, Bizkaibusean A-3641 lineako herri nagusia), mugikortasun jasangarria hobetuta. Ibilbide horri buruzko zehaztapenak (ibilbidea eta ordutegiak) eta hori justifikatzen duen memoria ekonomikoa hitzarmen honi erantsi zaizkio I. eta II. eranskinetan; beraz, hitzarmen honen parte izango dira.

salud de referencia, objetivos de sostenibilidad y movilidad legítimos que, para el presente convenio, se concretan en la creación de un nuevo itinerario/ruta en la Línea A-3614, incorporando nuevas expediciones para una mejor y más directa conexión, mejorando en términos de movilidad sostenible, con el Hospital de Galdakao-Usansolo para las localidades de la cuadrilla de Ayala del Territorio Histórico de Álava, así como para el término municipal de Orduña, actualmente municipio de cabecera para la línea A-3641 de Bizkaibus. Las especificaciones de dicho itinerario (itinerario y horarios), así como la memoria económica del mismo, se anexan al presente convenio como Anexos I y II, por lo que pasan a formar parte del mismo.

Horregatik, dagozkien esleipen eta eskumenei jarraiki, administrazio sinatzaileek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauen arabera:

Por ello, en virtud de las atribuciones y competencias que les corresponden, las Administraciones firmantes han resuelto suscribir el presente convenio con arreglo a las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea da alderdi sinatzaileen arteko lankidetzeta eta elkarlanerako araubidea ezartzea, mugikortasun jasangarria hobetzeko, eta, hartara, erreferentziazko osasun-zentro integratuekiko lotura hobetzeko.

Arabako Lurralde Historikoko Aiarako Kuadrillako erreferentziazko osasun-zentro integratuekiko konexio hobea eta zuzenagoa lortu nahi da, baita Urduñarako ere (Bizkaibuseko A-3641 lineako herri nagusia), Aiara eta Ludio osasun-eremuetako herriak baitira (Osasuneko sailburuaren AGINDUA, 2018ko apirilaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-eremuak zehazten dituen). Bi osasun-eremu horiek Barrualde-

PRIMERA.- OBJETO

El presente convenio tiene por objeto establecer el régimen de colaboración y cooperación entre las partes firmantes para la mejora de la movilidad sostenible, mejorando la conexión respecto a los centros de salud integrados de referencia.

Se busca lograr una mejor y más directa conexión con el centro de salud integrada de referencia para las localidades de la Cuadrilla de Ayala del territorio histórico de Álava, así como para el municipio de Orduña (municipio de cabecera en la línea A-3641 de Bizkaibus), localidades pertenecientes a las Zona de Salud Aiala y Llodio (ORDEN de 20 de abril de 2018, del Consejero de Salud, por la que se determinan las zonas de salud de la



Galdakaoko ESI erakunde sanitario integratu berekoak dira.

Comunidad Autónoma de Euskadi), perteneciendo ambas zonas de salud a la misma organización sanitaria integrada OSI BARRUALDE GALDAKAO.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak ibilbide berri bat sortu du Bizkaibusek zerbitzuko A-3641 linean: "008 Urduña/Orduña - Galdakao Ospitalea (Zuzena)" zortzigarren ibilbidea, eta beste bidaia batzuk gehitu ditu.

A estos efectos, se procede por la Diputación Foral de Bizkaia a la creación de un nuevo itinerario/ruta en la línea A-3641 del servicio de Bizkaibus, la octava ruta "008 Urduña/Orduña - Hospital Galdakao Ospitalea (Zuzena/Directo)", incorporando nuevas expediciones a la misma.

A3641 lineak hitzarmen honen I. ERANSKINEAN adierazitako ibilbidea eta ordutegia izango lituzke. II. eranskinean, hitzarmenaren memoria ekonomikoa, neurri horren eragin ekonomikoa jaso da.

La línea A3641 efectuaría el itinerario y dispondría de los horarios previstos en el ANEXO I al presente convenio. En el Anexo II, memoria económica del convenio, se recoge la afección económica de la presente medida.

BIGARRENA- IBILBIDE BERRIAREN EZAUGARRIAK

SEGUNDA- CARACTERISTICAS DEL NUEVO ITINERARIO

1.- Gaur egun, Bizkaibusek sei emakida hartzen ditu, 105 linea gutzira.

1.- En la actualidad, Bizkaibus engloba un total de seis concesiones, con un total de 105 líneas.

2.- NERBIOI ARRATIA DURANGALDEA emakidaren barruan, A3641 "Galdakao/Usansolo Ospitalea - Arrigorriaga - Nerbioi Garaia" linearen zerbitzua sartzen da. Linea horrek, gaur egun, ibilbide hauek eskaintzen ditu:

2.- Dentro de la concesión NERBIOI ARRATIA DURANGALDEA, se incluye la prestación de la línea A3641 "Hospital Galdakao/Usansolo - Arrigorriaga - Alto Nervión". Esta línea actualmente presta las siguientes rutas:

1. Galdakao/Usansolo Ospitalea-Basozelai-Arrigorriaga
2. Galdakao/Usansolo Ospitalea-Orozko
3. Galdakao/Usansolo Ospitalea-Orozko-Uribiarte
4. Orozko-Llodio
5. Galdakao/Usansolo Ospitalea-Urduña
6. Galdakao/Usansolo Ospitalea-Arrigorriaga
7. Arrigorriaga-Urduña/Orduña

1. Hospital de Galdakao/Usansolo-Basozelai-Arrigorriaga
2. Hospital de Galdakao/Usansolo-Orozko
3. Hospital de Galdakao/Usansolo-Orozko-Uribiarte
4. Orozko-Llodio
5. Hospital de Galdakao/Usansolo-Urduña/Orduña
6. Hospital de Galdakao/Usansolo-Arrigorriaga
7. Arrigorriaga-Urduña/Orduña

3.- Galdakao/Usansolo Ospitalea-Urduña/Orduña 5. ibilbidea da gaur egun Urduña eta Aiarako Kuadrillako herriak

3.- La ruta 5 Hospital de Galdakao/Usansolo-Urduña/Orduña es la que actualmente conecta las localidades de Orduña y las de la



Galdakao-Usansolo Ospitalearekin lotzen dituen. Ibilbide horrek tarteko 58 geltoki ditu JOANEKO noranzkoan, eta 54 ITZULERA KO noranzkoan. Horrek esan nahi du Galdakao-Usansoloko ospitalera joan behar duten bidaiariek denbora gehiegi behar dutela beren beharrak asetzeko, 60 minutu baino gehiago izan baitaitezke Laudiotik eta 80 minutu baino gehiago Urduñatik.

4.- Hitzarmen honen bidez, bi alderdik **ibilbide zuzenago bat sortzea adostu dute, aipatutako 5. ibilbideak lehendik zuen ibilbidetik abiatuta, I. eranskinean jasotakoaren arabera.** Hala, A-3641 lineak 7 ibilbide izatetik 8 ibilbide izatera igaroko litzateke.

Ibilbide berriaren ondoriozko bidaia berrien ondorioz, gutxi gorabehera 61.320,00 kilometroko bidea egingo da urtean Bizkaibusen A-3641 linean.

5.- Ibilbide horren bidez, noranzko bakoitzeko 3 bidaia egingo lirateke Urduñatik Galdakao-Usansolo Ospitalera bitartean, goizez eta eguerdiz, astelehenetik ostiralera, lanegunetan, I. eranskinean jasotako baldintzetan.

6.- Efizientzia eta ekonomia administratiboaren mesedetan, eta Bizkaiko Foru Aldundiak NERBIOI-ARRATIA-DURANGALDEA emakidaren kudeaketaren gainean duen eskumen zuzenaren mesedetan, administrazio eskuduna izango da aipatutako ibilbide berria formalki onartzeko eta bidaia-kopurua handitzeko, Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamendua onartzen duen apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuaren 34. artikuluan jasotakoaren arabera (“Zerbitzua emateko baldintza jakinen aldatetak: egutegia, ordutegia, bidaiak, ibilgailuak berritzea eta geralekuak”).

Cuadrilla de Ayala con el Hospital de Galdakao-Usansolo. Dicho itinerario cuenta con 58 paradas intermedias en sentido IDA y 54 en sentido VUELTA, lo cual supone a las personas viajeras que deben acudir al Hospital de Galdakao Usansolo unos tiempos de acceso que resultan excesivos para cubrir sus necesidades, ya que pueden superar los 60 minutos desde Llodio y los 80 minutos desde Orduña.

4.- Mediante el presente Convenio se acuerda por ambas partes **la creación de un nuevo itinerario/ruta más directo, a partir del recorrido ya existente de la mencionada ruta 5, en base a lo recogido en el Anexo I.** Así, la Línea A-3641 pasaría de 7 rutas a tener 8 rutas.

Las nuevas expediciones derivadas del nuevo itinerario supondrán, aproximadamente, la realización total de 61.320,00 kilómetros/año en la línea A-3641 de Bizkaibus.

5.- Mediante el citado itinerario, se realizarían 3 expediciones por sentido entre Orduña y el Hospital de Galdakao-Usansolo a las mañanas y mediodía, de lunes a viernes laborables, en los términos recogidos en el Anexo I.

6.- Que, en aras a la eficiencia y economía administrativa, y la competencia directa de la Diputación Foral de Bizkaia como poder adjudicador sobre la gestión de la concesión NERBIOI-ARRATIA-DURANGALDEA, será la administración competente en la aprobación formal del citado nuevo itinerario y el aumento de sus expediciones, según lo contemplado en el Artículo 34 del Decreto 51/2012, de 3 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de Transporte de Viajeros por Carretera, sobre “Variación de las condiciones concretas de prestación del servicio: calendario, horario, expediciones, renovación de flota y paradas”.



HIRUGARRENA. - "008 URDUÑA/ORDUÑA -GALDAKAO OSPITALEA (ZUZENA)" IBILBIDE BERRIAREN ERAGIN EKONOMIKOA.

Hona hemen ibilbide berria eta dagozkion bidaia berriak ezartzeak eragindako defizit gehigarria: ibilgailu berri baten funtzionamendu- eta inbertsio-kostua ken bidaia horietan bildutako dirua.

Bere zenbatespenak, eragiketa-kostuei, inbertsio-kostuei, tarifa-sarrerei eta hitzarmenaren indarraldiko defizitari dagokienez, II. eranskinean zehazten dira.

Era berean, II. eranskinean zehazten da hitzarmen honen xede den zerbitzuaren kostu ekonomikoaren zenbatespenen zehaztapen banaketa. Kostu ekonomiko hori bi alderdiek era adostuan hartu dute beren gain, memoria ekonomikoan ezarritako ehunekoen banaketa zehatzaren arabera.

LAUGARRENA.- ALDERDIEN BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK

4.1 Betebeharrak orokorrak:

1-Alderdiek lankidetzarako, informazioa emateko eta aholkularitza teknikorako formulak erabakiko dituzte, bi administrazioek funtzioak hobeto bete ditzaten.

2- Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute Bizkaibusen A-3641 linearen ibilbide berriaren sorrerari buruzko aldaketa hori ezagutzera emateko, bidaiariek une oro eta modu eguneratuan

TERCERA. -IMPACTO ECONOMICO DEL NUEVO ITINERARIO/RUTA "008 URDUÑA/ORDUÑA-HOSPITAL GALDAKAO OSPITALEA (ZUZENA-DIRECTO)".

El déficit adicional generado por la implantación del nuevo itinerario/ruta y de sus correspondientes nuevas expediciones resulta ser: el coste de operación e inversión de un nuevo vehículo menos la recaudación obtenida en dichas expediciones.

Sus estimaciones, en términos costes de operación, costes de inversión, ingresos tarifarios y déficit durante la vigencia del convenio, son las que se detallan en el Anexo II.

La determinación desglosada de las estimaciones del coste económico del servicio objeto de este convenio, asumido por ambas partes de conformidad con el concreto reparto porcentual acordado es el recogido asimismo en el Anexo II.

CUARTA.- OBLIGACIONES Y COMPROMISOS DE LAS PARTES

4.1 Obligaciones generales:

1-Las partes arbitrarán fórmulas de colaboración, suministro de información, asesoramientos técnicos, para el mejor cumplimiento de las funciones de ambas administraciones.

2- Las partes que suscriben el presente Convenio se comprometen a colaborar en la difusión de esta variación relativa a la creación de la nueva ruta en la línea A-3641 de Bizkaibus, en aras a que las personas viajeras



ezagut dezaten zerbitzu berri hori.

conozcan en todo momento y de forma actualizada este nuevo servicio.

3-Hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek lankidetzan jardungo dute hitzarmen honen xede den garraio-zerbitzua emateko foru-eskumenaren erabilera legitimotik eratorritako ahalak behar bezala eta zuzenbidearen arabera erabil daitezten.

3-Las partes firmantes se comprometen a colaborar a los efectos de que las potestades derivadas del ejercicio legítimo de la competencia foral para la prestación del servicio de transporte objeto del presente convenio puedan ser efectivamente desplegadas y de conformidad a Derecho.

4-Alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen ondorioak eta emaitzak baloratzeko eta egokitzat jotzen dituzten erabakiak hartzeko, betiere kontuan hartuta etorkizuneko Bizkaibus zerbitzu berriaren eta zerbitzu horrek zeharka kudeatzen dituen kontratu berrien egoera.

4-Las partes se comprometen a valorar los efectos y resultados del presente convenio, y a tomar las decisiones que al respecto tengan por oportunas, todo ello teniendo en cuenta la situación del futuro nuevo servicio Bizkaibus y de los nuevos contratos que vía indirecta gestionen el mismo.

5- Hitzarmen honen xedearekiko interes partekatua dela eta, bi alderdiek konpromisoa hartzen dute II. eranskinean jasotako defizitaren baterako finantzaketan parte hartzeko, honako banaketa-irizpide honen arabera:

5-Por razón del interés compartido respecto al objeto del presente convenio, ambas partes se comprometen a participar en la cofinanciación del déficit recogido en el Anexo II, en base al siguiente criterio de reparto:

	%	2026	2027	2028
<i>Arabako Foru Aldundia/ Diputación Foral de Álava</i>	% 88,26	232.102,98	236.870,40	240.864,80
<i>Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia</i>	% 11,74	30.873,43	31.507,57	32.038,89
DEFIZITA/DÉFICIT		262.976,41	268.377,97	272.903,69

4.2 BFArekiko betebeharrak:

4.2 Obligaciones respecto a la DFB:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak behar den kudeaketa guztia egingo du, bai aurrekontuei dagokienez, bai zerbitzuaren ustiapenari dagokionez, Bizkaibus zerbitzuko A-3641 linean ibilbide berri bat ezartzeko, eta linea horretan bidaiak egiteko, Galdakaoko ospitalearekin konexio hobea eta zuzenagoa lortzeko Arabako Lurralde Historikoko

1.- La Diputación Foral de Bizkaia procederá a realizar toda la gestión precisa, tanto presupuestaria como relativa a la explotación de servicio, para el establecimiento de una nueva ruta en la línea A-3641 del servicio de Bizkaibus, incorporando nuevas expediciones a la misma, a fin de lograr una mejor y más directa conexión con el hospital de Galdakao



Aiarako Kuadrillako herrietan, baita Urduñan ere (Bizkaibussen A-3641 lineako herri nagusia).

Hori esanik, ibilbide berria eta dagozkion maiztasunak martxan jartzeko behar diren proiektuek kreditu egokia eta nahikoa izan behar dute.

2.- Hitzarmenaren xedea benetan betetzen dela eta behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzuaren aldizkako jarraipena egingo du, Nerbioi-Arratia-Durangaldea emakidaren baldintza teknikoan pleguan ezarritakoaren arabera eta garraioei buruzko araudiaren arabera.

3.- Urtebete igaro ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak, 4.1.5 klausulan ezarritako defizitaren finantzaketan parte hartzearen irizpidean oinarrituta, likidazioa igorriko dio Arabako Foru Aldundiari, dagokion ordainketa-gutunarekin batera, azken horrek —hitzarmen honen bidez bere gain hartutako betebeharrak ekonomikoak betetzeko— dagozkion transferentziak egin diezazkion Bizkaiko Foru Ogasunari.

4.- Hitzarmen honen bidez sortutako ibilbide berri horretan edozein zerbitzu-aldaketa egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak dagokion ustiapen-kudeaketa eta, hala badagokio, aurrekontu-kudeaketa egin beharko du, hitzarmen honetan Arabako Foru Aldundiarekin adostutakoaren arabera, eta, zehazki, ondorengo klausulen arabera.

para las localidades de la cuadrilla de Ayala del territorio histórico de Álava, así como para el municipio de Orduña, municipio de cabecera para la línea A-3641 de Bizkaibus.

Dicho lo cual, los proyectos que resulten precisos para la efectiva puesta en servicio del nuevo itinerario/ruta con sus respectivas frecuencias quedan supeditados a la existencia de crédito adecuado y suficiente.

2.- Con el fin de garantizar el control efectivo y la buena marcha de la ejecución del objeto del convenio, la Diputación Foral de Bizkaia hará el seguimiento periódico del servicio de conformidad con lo establecido en el pliego de prescripciones técnicas de la Concesión Nerbioi-Arratia-Durangaldea, así como de conformidad con la normativa de transportes

3.- A año vencido la Diputación Foral de Bizkaia, en base al criterio de coparticipación en la financiación del déficit establecido en la cláusula 4.1.5, le girará una liquidación a la Diputación Foral de Araba, con su correspondiente carta de pago, para que ésta, en cumplimiento de sus obligaciones de carácter económico asumidas a través del presente convenio, realice las correspondientes transferencias a la Hacienda Foral de Bizkaia.

4.- Cualquier variación de servicio sobre esta nueva ruta creada a través del presente convenio requerirá la correspondiente gestión de explotación y, en su caso, presupuestaria, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con lo acordado en el presente convenio con la Diputación Foral de Araba, concretamente, de conformidad con las cláusulas subsiguientes.



4.3 Arabako Foru Aldundiarekiko betebeharrak

1.- Hirugarren interesdunek AFDri ematen dizkieten agiriak berehala bidaliko zaizkio BFari, hitzarmen honen helburuak gauzatu daitezzen, alderdi bakoitzaren berezko eta utziezinezko eskumenen arabera.

2.- Bidaia berri horiek ezartzeak eragindako defizit gehigarria beste ibilgailu baten funtzionamendu- eta inbertsio-kostua ken bidaia horietan bildutakoa da. Horien zenbatespenak II. eranskinean daude jasota.

3. Defizit hori mugaeguneratutako urtean konpentsatuko du AFDk BFaren alde, transferentzia bidez.

Horrela, AFDk, BFAk igorri nahi dizkion likidazioa eta ordainketa-gutuna jaso ondoren, dagokion transferentzia egingo du gehienez hogeita hamar (30) egun naturaleko epean, AFDk BFAk igorritako likidazioa eta ordainketa-gutuna jasotzen dituenetik zenbatzen hasita, betiere 4.1.5 klausulan ezarritako defizitaren finantzaketan batera parte hartzeko irizpidean oinarrituta.

Hitzarmen honen indarraldiko urteko zenbatekoa II. eranskinaren memoria ekonomikoan ageri den moduan eguneratuko da.

4.- Ibilbidea edo bidaia- eta geldialdi-kopurua eta kilometro-kopurua egokitu behar badira eta, horren ondorioz, AFDk ordaindu beharreko zenbatekoa hasieran ezarritako

4.3 Obligaciones respecto a la Diputación Foral de Álava

1.- Los documentos que se pudieran presentar por las personas terceras interesadas ante la DFA serán inmediatamente remitidos a la DFB en orden a hacer efectivos los objetivos de este convenio, y en base a las competencias que son propias e irrenunciables de cada parte.

2.- El déficit adicional generado por la implantación de estas nuevas expediciones, es el coste de operación e inversión de un nuevo vehículo menos la recaudación obtenida en dichas expediciones. Sus estimaciones son las recogidas en el Anexo II.

3. Este déficit será compensado a año vencido por la DFA a favor de la DFB, mediante transferencia.

Así, la DFA, una vez haya recibido la liquidación y carta de pago que la DFB le tenga a bien girar, basada en el criterio de coparticipación en la financiación del déficit establecido en la cláusula 4.1.5, procederá a realizar la correspondiente transferencia en el plazo máximo de treinta días (30) naturales, a computar desde que la DFA recepcione la liquidación y la carta de pago giradas por la DFB.

El importe anual durante la vigencia del presente convenio se actualizará en los términos recogidos en la memoria económica contenida en el Anexo II.

4.- En el caso de necesidad de adaptación del itinerario o su número de expediciones y paradas, así como de su kilometraje, que ocasione por ello una variación en el importe



zenbatespenen %30 edo gehiago aldatzen bada, hitzarmen honen eranskin edo antzeko formula bat onartu beharko da. Administrazio bakoitzak onartu beharko du, bere eskumena eta prozedura-arauen arabera, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

5.- Era berean, zerbitzu hori ematean ustekabeko gorabeherak gertatuz gero, horiek funtsezkoak badira eta erakunde batek hitzarmenaren araubide ekonomikoa hasieran ezarritako zenbatespenen % 30 baino gehiago gainditzen badu, hitzarmen honen eranskin edo antzeko formula bat onartu beharko da. Administrazio bakoitzak bere eskumen-arauen arabera onartuko du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

6.- Aurreko 4. eta 5. puntuei dagokienez, ehuneko horietara iritsi ezean ez da beharrezkoa izango eranskin bidez onartzea. Hori dela eta, AFDk dagokion aurrekontu-esleipena handitu edo txikitu egingo da, betiere Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzak txostena egin ondoren.

7.- Era berean, aurreko apartatueta adierazitako edozein aldaketa egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bidaiarien Garraio Zerbitzuko Burutzaren txostena beharko da, ustiapeneko eta aurrekontuko gai teknikoei dagokienez.

que corresponde abonar por la DFA que sea igual o superior al 30% de las estimaciones inicialmente previstas, requerirá de la aprobación a través de la correspondiente Adenda o fórmula análoga al presente convenio, aprobada por cada administración según sus normas competenciales y procedimentales, y publicándose en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

5.- Asimismo, en el caso de producirse circunstancias sobrevenidas respecto a la prestación de este servicio, se establece que en el caso de que sean sustanciales y de una entidad que supere el régimen económico del convenio en más de un 30% de las estimaciones inicialmente previstas, requerirá de la aprobación de la correspondiente Adenda o fórmula análoga al presente convenio, aprobada por cada administración según sus normas competenciales, y publicándose en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

6.- En relación a los puntos 4 y 5 anteriores, en el caso de no alcanzar dichos porcentajes no será necesaria su aprobación mediante Adenda, por lo que se realizarán los aumentos o disminuciones en la consignación presupuestaria por la DFA que corresponda en cada período previo informe de la Dirección de Movilidad y Transportes.

7.-Igualmente, cualquier variación de las previstas en los apartados anteriores requerirán del informe de la Jefatura del Servicio de Personas Viajeras de la Diputación Foral de Bizkaia, en torno a las cuestiones técnicas de explotación así como presupuestarias.



BOSGARRENA. ALDERDIEK ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Alderdi sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak – aurreko klausuletan jasotakoak – ez betetzeak hitzarmen hau suntsiaraztea ekarriko du. Hitzarmena suntsiarazten bada, ordura arte hartutako betebeharrak likidatu egingo dira.

SEIGARRENA. HITZARMENAREN BURUTZAPENA ETA HARTUTAKO KONPROMISOAK JARRAITU, ZAINDU ETA KONTROLATZEKO MEKANISMOAK

1.- Hitzarmen hau behar bezala gauzatzeko, Jarraipen eta Kontrolerako Batzorde Mistoa eratuko da. Batzorde hori izango da alderdi sinatzaileen arteko lankidetzarako bidea, baita hitzarmena interpretatzean eta jarraipena egitean sortzen diren arazoak konpontzeko eta hitzarmena betetzen dela eta hartutako konpromisoak betetzen direla kontrolatzeko ere.

2.- Honela osatuko da batzordea:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, batzorde hori honakoek osatuko dute: Garraioen Zuzendaritza Nagusiak (batzordeburua izango da), Bidaiarien Garraio Zerbitzuko Buruzagitzak eta zerbitzu bereko funtzionario tekniko batek, edo horiek ordezkatzeko dituztenek.
